Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Pedro Mari Armendariz Zubizarreta

Eskoriatza, Gipuzkoa
(1938-2020)



Aurkibidea

Biografia



San Juan kaleko "Felix Ubidena" kale-baserrian jaio zen. Bederatzi anai-arrebatatik bigarrena izan zen. Aita Bizkaiko Ubide herrikoa zen eta ama, berriz, Bolibar auzoko Jausoro baserrikoa. Hamahiru urterekin hasi zen lanean Zubizarreta lantegian sarrailagintzan. Gero Aretxabaletako Iturbe lantegian doitzaile gisa jardun zuen bederatzi urtez. Handik Ederlan lantegira pasatu eta bertan hartu zuen erretiroa. Gau-eskolan solfeoa ikasi zuen, eta gero Eskoriatzako musika-bandan aritu zen. Berrogei urterekin ezkondu zen "Patxikopaulo" kale-baserriko Purirekin.

Zintak

ESK-060

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-02-04
- **Iraupena**: 72 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Behi parea beti, uztarrirako

- **Erref**: ESK-060/002
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:01:51. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Etxean bi behi izaten zituzten beti, uztarrirako. Soroan erabiltzen zituzten, goldearekin edo behar zenarekin, lurra lantzerakoan. Gari sasoian garia ekartzen eta larrainean ere bai. Inguruko beste etxe batzuetan idiak zeuzkaten. Txerria eta oiloak ere izaten zituzten.

2. Gaztetatik baserriko lanetan; patata nola ereiten zuten

- **Erref**: ESK-060/006
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:04:48. **Bukatu**: 00:08:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Baserriko lanetan jardutea tokatu zitzaion gazte-gaztetatik: basotik ira, orbela edo egurra ekartzen, garitan, patatan... Patata nola ereiten zuten goldearekin. Batzuetan seietan jaiki, segarekin belarra ebaki eta zortzietarako lanera. Bi arreba eta bera ibiltzen ziren baserriko lanetan. Anaia nagusiagoa seminarista joan zen. Aitak lantegian lan egiten zuen.

3. Orbela eta ira basotik; gaztainak batzen eta zaintzen

- **Erref**: ESK-060/007
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:08:22. **Bukatu**: 00:10:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Pinu-orbela ekartzen zuten basotik, azpigarri gisa, irarik ez zegoenean. Gaztaina-arbolak zeuzkaten. Gaztainak batzen eta zaintzen ibiltzen ziren; jendea trenez etortzen zen Arrasatetik eta Gasteiztik gaztainak harrapatzera. Berak 16-17 urte zituela kendu zituzten gaztainak. Egosita jaten zituzten normalean.

4. Domingo Arrieta medikua disimuluan morokila jatera

- **Erref**: ESK-060/008
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:10:01. **Bukatu**: 00:11:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Afaltzeko ohikoak izaten ziren taloa eta esnea edo morokila. Morokila amak egin edo aitak, diferentzia egoten zen. Eskoriatzako medikua, Domingo Arrieta, disimuluan joaten zitzaien etxera, morokila jatearren.

5. Eguneroko jakiak; morokila eta ahia

- **Erref**: ESK-060/010
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:11:26. **Bukatu**: 00:14:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Bazkaltzeko babak eta urdaia edo txorizoa, baldin bazegoen. Igandeetan garbantzua eta aza edo porru-patatak. Afaltzeko, taloa eta esnea edo morokila. Morokil beroa esne hotzarekin. Ahia nola egiten zuten gari-irinarekin. Gaztainak normalean eguerdian jaten zituzten. Erreta bazeuden, meriendatan ere bai.

6. Lurra prestatu, garia erein eta ebaki

- **Erref**: ESK-060/012
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:14:20. **Bukatu**: 00:16:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garia ereiteko, lehenengo lurra goldatu eta artarea pasatu. Gero "trillua" pasatu eta belar txarrak kendu. Eskuarekin ereiten zuten garia. San Pedro inguruan ebakitzen zen igitaiarekin. Beste gari batekin lotu eta pila txikiak egiten ziren gero.

7. Gari-jotzea auzolanean; larraina nola prestatzen zuten

- **Erref**: ESK-060/013
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:16:55. **Bukatu**: 00:19:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Larraina nola prestatzen zuten behi-gorotzekin, alea errazago biltzeko. Gari-jotzea nola egiten zuten ganaduaren laguntzaz. Garia altua izaten zen eta lastoa ukuiluan aprobetxatzen zuten.

8. Ganbarako belarra hezea egonez gero, gatza bota

- **Erref**: ESK-060/014
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:19:30. **Bukatu**: 00:21:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Nahikoa zelai zuten etxeko ganaduarentzat belarra ekartzeko. Ganbaran gordetzen zuten belarra. Guztiz sikatu aurretik jasotzen bazuten ganbarara eta hezetasuna baldin bazuen, gatz lodia botatzen zioten, ez usteltzeko.

9. Behiei ardoa, txahala egindakoan

- **Erref**: ESK-060/015
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:21:24. **Bukatu**: 00:22:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Behiei ardoa ematen zieten, txahala egiten zutenean. Indarrak berreskuratzeko izaten omen zen.

10. Behiak zaindu behar, pagatxa jan ez zezaten

- **Erref**: ESK-060/016
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:22:27. **Bukatu**: 00:24:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Behiek zer jaten zuten zaindu egin behar izaten zen. Alpapa. Pagatxa jaten zutenean, esneak zapore fuertea izaten zuen. Behin behi bat hil egin zitzaien gehiegi janda.

11. Soroa urtero laiatzen zuten; laia motzak eta luzeak

- **Erref**: ESK-060/017
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:24:12. **Bukatu**: 00:26:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Etxeko hiru-lau elkartu eta laietan nola egiten zuten. Laia motzagoak eta luzeagoak. Mutikotan laia motzarekin. Urtero pasatzen zen laia soroan. Esaten zuten beharrezkoa zela lurrari buelta ematea, zerbait erne zedin. Erabili izan dituen beste tresna batzuk: sardea, artarea eta burdinarea.

12. Umetako jolasak, pote-poteka, txorro-morroka...

- **Erref**: ESK-060/018
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:26:03. **Bukatu**: 00:27:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:
Ez zuten jolaserako asti askorik izaten, igandeetan edo gau aldera gehien. Zer jolas egiten zituzten: pote-poteka, txorro-morroka... Udaran Ganuza etxera etortzen ziren aberatsen umeak ere eurekin ibiltzen ziren jolasean.

13. Eskola nazionalean fraideekin

- **Erref**: ESK-060/020
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:27:40. **Bukatu**: 00:28:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Eskola nazionalean ibili zen, baina fraideak ziren irakasle ("viatoristak"). Batzuk oso gogorrak ziren. Eskolak gaztelaniaz ziren, euskaraz egitea debekatuta zegoen eta.

14. Lantegitik JONSen kanpamendura; euskaraz egitearren zigorrak

- **Erref**: ESK-060/022
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:29:19. **Bukatu**: 00:31:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Politika eta Franco
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Hamalau urterekin lantegian lanean hasi eta berehala JONS talde falangistak Orion zuen kanpamendura bidali zuten. Lantegiak behartuta zeuden langile hasiberriak bidaltzera. TESAko langile bat eta biak joan ziren. Ez zuten dirurik jasotzen, baina dena ordainduta zuten. Euskaraz hitz egiten zuena zigortu egiten zuten.

15. Lantegitik JONSen kanpamendura, astebeterako

- **Erref**: ESK-060/023
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:31:42. **Bukatu**: 00:35:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
JONS talde falangistaren kanpamenduan Orion egon zenean eguna nola pasatzen zuten. Jaiki orduko "Cara al sol" kantatu behar. Astebete egin zuen. Lantegiak behartuta zeuden langile hasiberriak bidaltzera. Bera Zubizarreta lantegitik joan zenean, TESAko langile bat ere joan zen. Kanpamendua, ohatzeak, jatekoa. Ardorik ez zieten ematen han; ordurako jada hasita zeuden ezkutuan ardoa edaten.

16. Udako oporretan, basora, egurretara

- **Erref**: ESK-060/026
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:36:45. **Bukatu**: 00:38:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Udako oporretan aitarekin urrun zuten baso batera joaten ziren egurretara. Egun batean egurra prestatu eta hurrengoan etxera ekarri. Egurra behar izaten zen etxeetan, ekonomikarako. Trontza eta aizkora erabiltzen zituzten.

17. Etxeko kide guztiak zelaira sahatsa eramaten

- **Erref**: ESK-060/027
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:38:18. **Bukatu**: 00:39:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Garai batean etxe inguruko lur-sailak zelaiak ziren. Etxetik urrunago zuten zelaira sahatsa otarrean eramaten zuten etxeko guztien artean, eguerdietan, lanetik etxeratutakoan. Handik buelta egin eta berriz lanera. Gurdiarekin joateko bide txarra eta asti gutxi. Astorik ez zuten; beraiek omen ziren orduan astoak. Gogoan du behin bizilagunei eskatu zietela astoa, hesolak basora eramateko.

18. Marindik Ubidera oinez, behi bat ekartzera

- **Erref**: ESK-060/029
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:40:21. **Bukatu**: 00:42:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Iratara joateko, lanetik bizikletan etxeratu, behiak hartu eta basora. Aita lanetik zuzenean joaten zen basora bizikletan. Ira prestatu, behiak kargatu eta etxera. Berak 9 urte inguru zituela, Ubidera joan zen aitarekin behi bat ekartzera. Marinera trenez; handik oinez. Baimenik gabe ezin zen behirik erosi.

19. Eskoriatzako kale-baserrien izenak

- **Erref**: ESK-060/033
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:50:47. **Bukatu**: 00:52:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Eskoriatzako kale-baserrien izenak. San Juan kalean 14-15 kale-baserri zeuden.

20. San Juan kalekoen batasuna

- **Erref**: ESK-060/034
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:52:45. **Bukatu**: 00:56:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:
Mutikotan San Juan kalekoek beste kaleetakoen kontra egiten zuten futbolean. San Juan kalean abadeak edo deabruak zeudela dio, bertatik eliz-gizon eta moja asko irten baitzen. Familia handiak. Auzokoen arteko harremana: elkarri laguntzen zioten. Zer lan egiten zituzten auzolanean. San Juan kalea eta Hidalga kalea, "beste San Juan kalia". Herriko bi arrandegiak ere San Juan kalean zeuden. Arraina Ondarroatik ekartzen zieten. Arrasateko "Txantxote".

21. Errazionamendu sasoiko trukeak

- **Erref**: ESK-060/035
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:56:50. **Bukatu**: 00:58:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Zer gai hartzen ziren errazionamenduan. Erretzen zutenek eta ez zutenek trukeak egiten zituzten. Aitak asko erretzen zuen. Coruñara ezkonduta zegoen anaiak puruak ekartzen zizkion handik.

22. On Fakundo abadeari mezan laguntzen ari zela gertatutakoa

- **Erref**: ESK-060/037
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:58:42. **Bukatu**: 01:00:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Meza-laguntzaile lanean ibili zen mutikotan. Behin meza erdian on Fakundo abadearekin eztabaida izan zuen, abadeak uste baitzuen ardoari ura nahastu ziola. Ardoa aldatu zutelako izan zen guztia.

23. On Agustin parrokoak meza-laguntzaileei soldata jaitsi zienekoa

- **Erref**: ESK-060/038
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 01:00:28. **Bukatu**: 01:02:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Lau meza-laguntzaile egoten ziren. Egunero bat edo bi egoten ziren meza laguntzen eta domeketan laurak. Astean pezeta bana ordaintzen zieten. Behin on Agustin parrokoak pezeta bat eman zien laurentzat, bestetan ere hala egiten zuela esanda. Meza-laguntzaileek idatzi zioten oharra.

24. Mojei okerreko mezua eman zienekoa

- **Erref**: ESK-060/039
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 01:02:27. **Bukatu**: 01:04:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Behin on Pedro abadeak mesedeetako mojentzako mezua eman zion. Berak abadea ezin zela konfesatzera joan esan beharrean, ezin zela meza ematera joan esan zien eta mojak abade bila ibili ziren. Abadeak sekulako belarrondokoa eman zion. Gauean barkamen eske joan zitzaion.

25. Lau-bost urtean Eskoriatzako Musika Bandan

- **Erref**: ESK-060/040
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 01:04:40. **Bukatu**: 01:07:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
15 urtetik 18-19 urte bitartean Eskoriatzako Musika Bandan ibili zen. Klarinetea eta txistua ikasi zituen. Bandako zuzendariak. Astean bitan entseatzen zuten eta, kontzertuak zeudenean, gehiagotan. Futbola ere gustatzen zitzaion eta, 3.mailako Aretxabaleta taldean fitxatzear zegoela, peronea puskatu zuen. Orduan dena utzi zuen: futbola eta banda.

26. `Gora Euskadi´ jo zuen Eskoriatzako Musika Bandarekin

- **Erref**: ESK-060/041
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 01:07:33. **Bukatu**: 01:10:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:
Behin Eskoriatzako Musika Bandako zuzendari errioxarra Donostiara joan zen eta Erbiti musika-dendan `Gora Euskadi´ kantaren partitura erosi zuen. Kalejiran jo zuten Eskoriatzan eta jende guztia txaloka. Bandan saxofoia jotzen zuen kide bat karlista zen eta hark ez zuen jo. Haren etxe paretik pasatzean, atea itxi zieten.

27. Gau-eskolan hasi zen solfeoa ikasten

- **Erref**: ESK-060/042
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 01:10:27. **Bukatu**: 01:11:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Gau-eskolak egoten ziren marrazketa edo bestelako kontuak ikasteko. Bera solfeoa ikasten hasi zen `Andiketa´rekin eta hortik sartu zen Eskoriatzako Musika Bandan, klarinetea jotzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-04

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com